

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3357

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, aldatu egiten da Trianoko Mendien eremuko behin-behineko mugaketa; mugaketa hori 2006ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez onartu zen. Agindu horren bidez, Trianoko Mendien inguruko Natura-baliabideak Antolatzeke Plana landu eta onartzeko prozedura hasi zen.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak 2006ko ekainaren 13an emandako Agindu bidez, hasiera eman zitzaion Trianoko Mendien inguruko Natura-baliabideak Antolatzeke Plana landu eta onartzeko prozedurari, 700 ha-ko eremura hedatu zen, eta eranskinean mugatzen zen lurraldea hartzen zuen.

2006ko uztailaren 7ko EHAAg Agindua argitaratu zenean (129. zk.), Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak parte hartzeko foro bat bultzatu zuen, Aarhus-eko Hitzarmenaren ildotik (Danimarka, 1998ko ekainaren 25a), gai hauen gainekoa: informazioa eskuratzea, erabakiak hartzean herritarrek parte hartzea eta ingurumenaren arloan justiziara jotzea. Foro hori Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean ezarritako legezko izapideekiko askea eta osagarria da, eta horrekin bermatzen da aurretiazko fase batean jendarteak parte-hartze handiagoa eta hobea izatea, Natura-baliabideak Antolatzeke Plana lantzeko aukera guztiak irekita zeudenean.

Prozesu zabal horren ondorioz, NBAPari ekarpenak egiteko agiri bat idatzi zen, 2007ko martxoan.

Ondoren, 2009 eta 2010 urteetan zehar, bileren prozesuari berrekin zitzaion: Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta ondorioak jasango dituzten udalekin. Horrekin guztiarekin, adostasun politikoa eta soziala lortu da, babestutako biotopoa izango denaren esparrua handitzea onartzeko; 960 hektareako azalera edukitzera igaroko da.

Eremua babesteko helburuen funtsa kultura, natura eta paisaia arloetako balioetan datza, ingurune horren izendapenari hasiera eman zioten helburuak bezala. Honako hau nabarmendu behar da: handitze hori egiteko arrazoi nagusia babesa eremu karstiko osora hedatzea da. Izan ere, geologia-substratu horrek sortzen du, era berean, gunearen balioa handitzen

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

3357

ORDEN de 18 de mayo de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca por la que se modifica la delimitación provisional del área de los Montes de Triano aprobada por la Orden de 13 de junio de 2006 por la que se inicia el procedimiento de elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de los Montes de Triano.

Mediante Orden de 13 de junio de 2006, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se inició el procedimiento de elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de los Montes de Triano, extendiéndose a un área de 700 ha y abarcando el territorio que se delimitaba en su anexo.

Una vez publicada la Orden en el BOPV n.º 129, de 7 de julio de 2006, la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental impulsó un foro de participación en el marco del espíritu del Convenio de Aarhus (Dinamarca, 25 de junio de 1998) sobre el acceso a la información, la participación del público en la toma de decisiones y el acceso a la justicia en materia de medio ambiente. Este foro es independiente y complementario a los trámites legales previstos en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, y con ello se garantiza una mayor y mejor participación social en una fase previa, cuando todas las posibilidades en la elaboración del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales estaban abiertas.

Fruto de este amplio proceso se redactó un documento de aportaciones al PORN en marzo de 2007.

A continuación, y a lo largo de los años 2009 y 2010, se retomó proceso de reuniones con la Diputación Foral de Bizkaia y los Ayuntamientos afectados, todo lo cual ha concluido en un consenso político y social para aprobar una ampliación en la delimitación del ámbito del futuro biotopo protegido, cuya superficie pasará a ser de 960 hectáreas.

Los objetivos de protección del área se centran en sus valores culturales, naturales y paisajísticos, al igual que aquellos que llevaron al inicio de la declaración de este entorno. Hay que resaltar que el principal motivo de esta ampliación es llevar la protección al total de la zona kárstica, ya que dicho sustrato geológico es, a su vez, causa del característico modelado

duen paisaia-eredu bereizgarri hori (dolinak, iturriak, hustubideak...), eta burdina-mineralezko zainen egitura berezia. Egitura horretan egin diren erauzketa-ebaketa ikusgarriek ematen diote eremu horri erakargarritasunik handienetakoa. Gainera, Galdamesko Mendietako lurpean, EAeko harpe-dentsitaterik handienetakoa dago; beraz, gune hori antolatzea aukera paregabea da geomorfologia-unitatearen mailan plangintza bat egiteko, bai endokarstarena eta bai lurrazalarena, beren prozesuak eta harremanak batera aztertuz. Proposatutako handitzean, Eretza Mendiaren gailurra ere sartzen da aztertutako eremuan; 887 metroko garaiera du, eta muga nabarmena ezartzen du gune horretako paisaian.

Ondorioz, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Mugaketa berria.

Trianoko Mendien eremua aldatu egiten da; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2006ko ekainaren 13ko Aginduaren 2. artikuluan eta eranskinean zegoen onartuta eremu hori aldi baterako. Agindu horren bidez, Trianoko Mendien inguruko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana landu eta onartzeko prozedurari hasiera eman zitzaion. Behin-behineko mugaketa berria Agindu honen eranskinean argitaratzen den mapan jaso da.

2. artikulua.– Kautelazko babesa.

a) Eranskinean mugatzen den eremuan Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeak 9. artikuluan xedatutakoa ezarriko da, eta ezin izango da egin eremuaren egoera fisikoa, geologikoa eta biologikoa nabarmen alda dezakeen ezer, aldaketa hori planaren helburuak lortzeko oztopo bada edo helburuak lortzea galarazten badu.

b) Hortaz, ezin izango da eman baimenik, lizentziarik edo emakidarik, eremuaren egoera fisikoa edo biologikoa alda dezaketen ekintzak burutzekoa denik, foru-organo eskudunak ekintza horien aldeko txostena egin ezean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 18a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

del paisaje (dolinak, fuentes, sumideros,...) que revaloriza la zona y de la singular estructura en filones del mineral de hierro, cuyas espectaculares cortas de extracción suponen uno de los mayores atractivos de esta área. Además, en el subsuelo de los Montes de Galdames existe una de las mayores densidades de cavernamiento de la CAPV, por lo que la ordenación de esta zona supone una oportunidad única para realizar una planificación a nivel de unidad geomorfológica, tanto del endokarst como de la superficie, analizando conjuntamente sus procesos e interrelaciones. La ampliación también integra dentro del área estudiada la cumbre del Monte Eretza, que con 887 metros de altitud supone un notable hito paisajístico en la zona

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.– Nueva delimitación.

Se modifica el área de los Montes de Triano aprobada provisionalmente en el artículo 2 y en el anexo de la Orden de 13 de junio de 2006, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se inicia el procedimiento de elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de los Montes de Triano, quedando la nueva delimitación provisional tal y como se recoge en el mapa que se publica en el anexo a la presente Orden.

Artículo 2.– Protección cautelar.

a) En el área delimitada en el anexo será de aplicación lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, no pudiendo realizarse actos que supongan una transformación sensible de la realidad física, geológica y biológica que pueda llegar a hacer imposible o dificultar de forma importante la consecución de los objetivos de dicho Plan.

b) A tal efecto, no podrá otorgarse ninguna autorización, licencia o concesión que habilite para la realización de actos de transformación de la realidad física o biológica sin informe favorable del órgano foral competente.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de mayo de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ERANSKINA

TRIANOKO MENDIEN INGURUKO BIOTOPO
BABESTUAREN ESPARRUA

ANEXO

ÁMBITO TERRITORIAL DEL BIOTOPO
PROTEGIDO DEL ÁREA DE LOS MONTES DE
TRIANO

